



# euskalerriko eskautak idearioa



... eraldaketa eta banjeliztatze egiteko  
bereziki ekonomia eta kultura arloko  
zen da eta gero eta sektore gehiago  
gero eta baliabide gutxiago dituan  
gainean, txirotasun estrukturalen n  
azaltzen da korporazio handien e  
n gehikuntza nabarmena izan da.  
azio eragile bezala, hezkuntza talde  
en diren arazoez zailtasun handiak  
filien eraketan izandako arazoak di  
kusitako teknologia berrien ezarpe  
Ondasun materialak erreferentzia ab  
tu bertatik. Hortik eta Jesukristogan  
alioak onartuz, EEK lau ordezkari  
in bat definitzen duten funtsezko hi  
rmandade handi bezala itxuratzen  
gizarte eredia aurkezten ditu hona  
uten du. Baden Powell-en intuizio  
aisialdia, aldi horretan pertsonak, l  
handiagoraz azaltzen da gizon eta e  
eztu behar dela hezkuntza aukera; g  
eei, hortik aurrera pertsona bezala  
izitzako egoera guztietara heda dait  
eskaintzen digu, hezkuntzak honak  
la

euskalerriko eskautak

## idearioa

... Giza hartemak bultzatu.  
rabaki, ekinza eta gogoeta gaitasun  
berdinen taldean jadedts ditzaketela  
du behar dio bere garapenaren leh  
uz. - Gizakiaren zen kritikoa sustatu  
bilatuz, beren kabuz erabakitze  
rdi guztiak (intelektuala, gorputzare  
i bere alderdi pertsonala eta sakona  
oinarritzat izango duen hezkuntza a  
lkarrekiko eta baterako hazkundea  
en indibidualean oinarrituko den l  
jakin bat erabiliz. Metodo honek i  
bitzaren alderdi zehatzeraz moldatze  
en da. Hauen bidez Jesusen Zoriontasunetan oinarritutako balioen prop  
eta guztiaren jatorria aurkitzen du. l  
beraren esperientziaren bidezko hez  
karka identifikatua dela sentitzen d  
zkuntza lana, hau da, berauek dira  
atzeko Elizaren eskaintza bezala au  
stau sarbideko ibilbidea garatzen du  
kera ematen die. B.2. Jainkoarengan  
litatearen presentzia antzematen di  
iatzen gara. B.3. Jesukristoren Jaink  
a osoak Jainkoa nolakoa den, zer n  
suna, txirotasun eta bazterketaren a  
esukristo berpiztuaren jarraitzaile ga  
a Jainkoarengana zabalitzen denak  
e inguruko mundua aldatzen eta ze  
rantzun askea da. Fedearen bidez Je  
eta bizi izateko eratik. Jainkoaren

# euskalerrikoeskautakidearioa

Editorea: Euskalerriko Eskautak  
Diseinua eta Maketazioa: Goitibera  
Inprimatzaile: Berekintza

2004ko iraila



- sarrerasarrerasarrera \_4 orrialde
- a.hezkuntza aukera \_6 orrialde
- b.sinestedun aukera \_10 orrialde
- c.gizartea aukera \_14 orrialde
- gure pertsona eredua \_19 orrialde

# sarrersarrerasarrera

Eskaut Mugimendu Katolikoan eta, honen bidez, Munduko Eskaut Mugimenduan dauden Euskal Herriko elizbarrutietako eskaut elkarteen federakunde bezala

## **aurkeztzen dugu Euskalerriko Eskautak (EE).**

EE hezkuntza mugimendua da eta bertan gizabanakoaren hazkunderako eta gure gizartearen aldaketarako funtsezko bidetzat hartzen da hezkuntza.

Baina, gure ideiak aurkeztu aurretik, interpelatzen gaituen eta gure hezkuntza, eraldaketa eta ebanjelizatze egitekora dei egiten digun gaurko testuingurua hartuko dugu abiapuntutzat. Hauek dira **gaurko sistema eta gizartearen giltza batzuk:**

- Gizarte honetan, sistema neoliberalak nagusitzen dihardu eta globalizazioa, bereziki ekonomia eta kultura arlokoa, hedatzen ari da
- Globalizazio prozesu azkar honen eraginez, boterea bakar batzuen esku biltzen da eta gero eta sektore gehiago geratzen da planetako ondasunetatik eta hauen gaineko erabakietatik kanpo
- Aniztasun biologiko nahiz

kulturalaren galera nabarmentzen da; ondorioz, gero eta baliabide gutxiago dituan mundura moldatzeko aukerak murriztu egiten dira

- Merkatu askeak protagonismoa hartzen du eta gizakia truke-merkantzia bihurtzen da
- Iparraldeko herrialdeek beren nagusitasuna areagotzen dute hegoaldekoen gainean, txirotasun estrukturalen murgilduz eta bertatik ateratzeko aukerak ezereztuz
- Garapen egitasmoa gizarte zuzen eta orekatuaren ereduagatik baino hobeto azaltzen da korporazio handien ekonomia interesengatik
- Globalizazioak eragindako desordenaren ondorioz, migrazio mugimenduen gehikuntza nabarmena izan da
- Merkatuak, gainera, gorantza doan aisiaren industria sortu du. Hau, sozializazio eragile bezala, hezkuntza taldeekiko lehian aritzen da
- Lan ezegonkortasunak eta, prezio altuak direla-ta, etxebizitza jadesteko izaten diren arazoek zailtasun handiak dakartzate gazteen burujabetze prozesuan

# sarrersarrerasarrera

- Familia da, gaur ere, lehenengo eragile sozializatzaile nagusia. Hala ere, familien eraketan izandako arazoak direla, eta bereziki denbora eta espazio zailtasunak direla, sarritan isolatuta aurkitzen dira eta tentsio eta hutsuneak ere agertzen dira familiaren eta eskolaren artean
- Indibidualismo gero eta handiagoa, besteak beste, ikuspuntu neoliberaletik ikusitako teknologia berrien ezarpenagatik
- Sekularizazioa eta erlijio axolagabekeria hedatzen ari direla ikus dezakegu. Ondasun materialak erreferentzia absolututzat hartzen dira, alderdi transzendentea hondar-espazioetara edo existitzen ez diren espazioetara zokoratzen da

Herri bereko kide gara eta sentitzen gara eta berariazko idiosinkrasia jaso dugu bertatik. Hortik eta Jesukristoganako gure fedetik, gure konpromiso sendoa eskatzen duen gizarte eta pertsona eredu berria sumatzen dugu

## Ondorengoek bateratzen gaituzte:

- **Historiak.** Eskultismoak proposatutako balioak onartuz, EEK lau ordezkari izan (Araba, Bizkaia,

Nafarroa eta Gipuzkoa) federakunde bezala jarduten du 1959. urtetik aurrera. Harrezkero, bizipen, ilusio, egitasmo eta esperientzia ugari konpartitu izan dugu

- **Egitasmoak.** EEK ideien bilduma honetan garatzen diren eta giza tankera jakin bat definitzen duten funtsezko hiru aukerak bere egiten ditu
- **Metodoak.** Eskaut metodoa, izateko eta egiteko estilo jakin bat da. Eskaut ermandade handi bezala itxuratzen gaituen eta, mundu osoan zehar, bizi proposamen hau gauzatzen diharduten beste anai-arreba batzuekin elkartzen gaituen metodoa.

Beraz, aisialdiko Hezkuntza Mugimendu bezala definiturik, EEK pertsona eta gizarte eredu aurkezten ditu honako hauen bitartez:

- \_ Hezkuntza aukera
- \_ Sinestudun aukera
- \_ Gizarte aukera

# a. hezkuntza aukera

**a.1.** Euskalerriko Eskautak erakundeak aisialdian jarduten du. Baden Powell-en intuizio pedagogikoak bere eginez; berariazko metodoaren bidez, eskaut metodoaren bidez, gauzatzen saiatzen da

**a.2.** EEen ikasleentzako hezkuntza ez formalerako gune pribilegiatutzat dugu aisialdia,aldi horretan pertsonak, lan betebeharririk gabe, askatasunez aukeratutako ekintzak egiten dituelako

**a.3.** Gure ustez, aisialdia gertaera soziala da eta gure gizartean gero eta indar handiagoz azaltzen da gizon eta emakumeen bizitzan. EEetik, eta aisialdia denbora pasibotzat eta kontsumorako tartetzat hartzen duen gizarte sistemaren aurrean, berariazko dinamika pedagogikoaren bidez, pertsonen osoko hezkuntza eta garapenerako gune egoki bezala hartzeko aukera berresten dugu

**a.4.** EEetik zera ulertzen da: aisialdia aisialdi hezitzaile izan dadin nahita aurkeztu behar dela hezkuntza aukera; gero, hezkuntza propos amean zehaztuko da eta proposamen horretan ekintzen bidez ahalbidetuko da pertsonaren gaitasun guztien garapena

**a.5.** EEen iritziz, aisialdiak beren buruaren jabe izaten lagundu behar die ikasleei, hortik aurrera pertsona bezala hezi daitezen, euren interes, motibazio eta gaitasunen arabera

**a.6.** Dena dela, gure ustetan, garrantzikoena ez da aisialdia, jarrera horiek bizitzako egoera guztietara hedatu daitezela eta bizitza hori, apurka-apurka, eralda dadila baino. Denborak libre izan behar du, bai, baina baita gizakiak ere

**a.7.** Beste alde batetik, aisialdiko hezkuntzak hezkuntza esparru pribilegiatua eskaintzen digu, hezkuntzak honako ezaugarriak dituela aintzat hartuz:

- Aisialdi dibertigarriko aukera ematen du
- Aisialdi boluntariorik abiatzen da
- Errealitatearekiko harreman segurua eragiten du, sarraldi babestuen bidez
- Harreman pertsonalen esparrua zabaltzen du era askean eta baldintzarik gabekoan
- Berdinen arteko topagune bateratua bermatzen du, lagunarteko benetako harremanetara zabalduz

# a. hezkuntza aukera

- Baliabide materialak eskaintzen ditu.

- Ikasleak, elkartasuna, zuzentasuna, tolerantzia, elkarrizketa, errespetua, doakotasuna eta antzeko balioak bere egitea dakar

- Bere fedea bizi, ospatu, konpartitu eta heltzeko denbora egokia izateko aukera ematen dio sinestledunari

- Hezitzaile gazteak ditu eta, ondorioz, ikasleak hauekin identifikatzen dira

**a.8.** Beraz, EEen iritziz, aisialdiko hezkuntzaren alderdirik garrantzitsuena denbora hori hezkuntza esperientzia egitea da. Horretarako, lau arlo hartu behar dira kontuan:

- Ikasten ikasi. Hau da, beren burua hezteko mailakako gaitasuna eman ikasleei

- Giza harremanak bultzatu

- Inguruarekiko harremana eta bertako kide izatearen sentimendua eragin

- Erabaki, ekintza eta gogoeta gaitasuna ahalbidetu, arrazionaltasun

justifikatuaren eta koherentzia pertsonalaren barruan

**a.9.** Aipatutako guztiak ez luke zentzurik taldearen barnean egingo ez balitz, berdinen taldean jades ditzaketelako balio demokratikoak, elkartasuna eta talde arteko lankidetzat sustatuz

**a.10.** EEetik honako estilo pedagogikoaren alde egiten dugu:

- Gizakiari lagundu behar dio bere garapenaren lehenengo aldietan eta heldutasunerako bidean

- Gizakiaren alderdi sozialaren erabateko garapena eragin behar du

- Hezkuntza arloko behar pertsonalei arreta eskaini behar die, taldean txertatuz

- Gizakiaren zen kritikoa sustatu behar du, etengabeko hazkunde eta bilaketan ari den izakitzat hartuz

**a.11.** Azken batean, pertsonak askatasunez heziko dituen estilo pedagogikoa bilatuz, beren kabuz erabakitze gaia izan daitezten. Guzti hau, ondorengo esparruan egin behar dela uste dugu:

# a. hezkuntza aukera

- Gizakiaren alderdi guztiak (intelektuala, gorputzarena, afektiboa, soziala, morala eta erlijiosoa) hartuko dituen osoko hezkuntza
- Askatasun indibidual eta kolektiboaren garapena eragingo duen eta gizakiari bere alderdi pertsonala eta sakona askatzen lagunduko dion hezkuntza askatzailea
- Bere bat-bateko jarduera errespetatuz eta bere beharrei erantzunez, ikaslea oinarritzat izango duen hezkuntza aktiboa
- Bi noranzkoko hezkuntza, hezitzailearen eta ikaslearen arteko harremanak elkarrekiko eta baterako hazkundea bultzatzen
- Beren jatorri, ideologia edo gaitasunak aintzat hartu gabe, pertsonen onarpen indibidualean oinarrituko den hezkuntza integratzailea

**a.12.** EEA hezkuntza hau aisialdian garatzen saiatzen da, **metodo** pedagogiko jakin bat erabiliz. Metodo honek ikasleen adinera mailaka moldatzen diren osagai batzuk ditu:

- **Ekintza erakargarri eta mailakatuak.** Ekintzak ikasleak bizi

duen prozesu bakoitzaren alderdi zehatzera moldatzen dira, hezkuntza prozesuko protagonista nagusi bihurtzen duten mailakako erantzukizunak hartzea eraginez. Era berean, ekintzak erakargarriak dira, hau da, ikaslearen beraren interes guneetatik sortzen dira

- **Sinbologia.** Legean eta Agintzan zehazten da. Hauen bidez Jesusen Zoriontasunetan oinarritutako balioen proposamena egiten zaio ikasleari

- **Izadia.** Aparteko esparrua gizakia bere egoerarik berezkoenera itzultzen da eta guztiaren jatorria aurkitzen du. Ingurune naturalak geure inguruaz jabetzen, hori baloratzen eta maitatzen laguntzen digu

- **Ekintza bidezko hezkuntza. Ekintza - Gogoeta - Ekintza (E.G.E).** Ikaslearen beraren

esperientziaren bidezko hezkuntzan oinarrituta. Ekintza, gogoeta, ekintza prozesua da: esperientziaren pedagogia. Bizitzatik abiatzen gara, esperimintatutakoa hausnartu eta barneratu ondoren, hara bueltatu eta era kontsekuentean jarduteko

- **Talde handia - talde txikia.** Talde txikian egindakoaren bidez, aitortua eta bakarka identifikatua dela sentitzen du ikasleak. Talde txikian



# a. hezkuntza aukera

jardunez, gizabanakoen garapen  
indibiduala bultzatzen dugu

**a.13.** Monitoreek gauzaten dituzte  
ideia hauek. Berauek bermatzen dute  
hezkuntza lana, hau da, berauek dira  
eskaut metodoa martxan jartzeaz  
arduratzen direnak. Metodo hau, era  
bateko eta besteko metodologiei eta  
esparru sinbolikoei esker,  
ikasleengana iristen da. Ez da  
beharrezkoa dena jakitea edo  
ikasketa zailak izatea, liluratzeko,  
jolasteko, antzemateko, hunkitzeko  
edo borrokatzeko gauza izatea baizik.  
Laburbilduz, ikasleekin bizi izateko  
gauza izatea



# b. sinestedun aukera

## **b.1. Apustua**

Euskalerriko Eskautak aisialdian ebanjelizatzeke Elizaren eskaintza bezala aurkezten da. Fedearen hasierak iragarpena eskaintzen du eta haurtzaro eta gaztarorako kristau sarbideko ibilbidea garatzen du. Gainera, askotan aldentuta dauden familiei kristau elkartera hurreratzeko aukera ematen die

## **b.2. Jainkoarengan sinesten dugu**

EEek kideen erlijio sena lantzen du. Ageriko hutsaren atzean Jainkoaren errealitatearen presentzia antzematen du. Jainkoa irrika eta itxaropen handietan, maitasunean, osotasun nahietan, edertasunean, izadian eta gizaterian aurkitzen saiatzen gara. Gizon eta emakumeok sakontasunez begira diezaiekegu gure bizitzei eta munduari, eta Jainkoarekin bat egin dezakegu. Bibliatik eta, bereziki, Ebanjelioan hitz egiten dugun Jainkoarekin bat egiten saiatzen gara

## **b.3. Jesukristoren**

**Jainkoarengan sinesten dugu**  
Jesukristo gizon egindako Jainkoa dela sinesten dugu. Horregatik, bere bizitza osoak Jainkoa nolakoa den, zer nahi duen eta gure alde zer

egiten duen erakusten digu. Gainerako gizon eta emakumeen aldeko bere zerbitzuzko bizitza, bere askatasuna, txirotasun eta bazterketaren aldeko aukera, bere egitasmoaren -Jainkoaren Erreinu- aldarrikapena eta Jainko Aita-Amarengan konfiantza izatea eskaut eredu bezala aurkezten dira. Berarengan dago gure fede, bizitza eta konpromisoaren jatorri eta zentzua. Jesukristo berpiztuaren jarraitzaile gara

## **b.4. Bat egitearen esperientzia, fede esperientzia**

Jainkoa antzematen duen eta Jainkoarengana zabaltzen denak benetako eraldaketa bizi izaten du. Berak maite gaituela sentitzen dugu eta maitasun horrek gure bizitzak eta gure inguruko mundua aldatzen eta zentzuz betetzen du

Fedea Jainkoaren Maitasun horri egiten diogun harrera eta ematen diogun erantzun askea da. Fedearen bidez Jesukristorekin bat egiten dugu, Jainkoaren Espirituaren indarraz berritu egiten gara, Zoriontasunen balioak bizi ditugu eta eliz elkartean txertatzen gara

# b. sinestedunaukera

## Honela bizi dugu fedea:

### **b.5. Jainkoaren esperientzia bezala**

Fedea ulertzeko eta bizi izateko eratik, Jainkoaren esperientzia hezten dugu. EEek Jainkoaren benetako esperientzia ahalbidetzen du, ez teoriatik, ekintzatik eta beste batzuekin batera bizi izandako bizitzatik baizik. Hau da, egunerokoa, taldearen bizitza eta jarduera eragiten duten esperientziak, sortzen dituen aukerak, leku egokia dira Jainko hurbilaren esperientzia bizi izateko

Hauak dira elkarrekin bizi ditzakegun funtsezko esperientziak:

... seme eta alaba izatearen esperientzia: Aita-Ama den Jainkoa.

... senidetasun, anaitasun eta berdintasunaren esperientzia.

... espiritualtasunaren esperientzia, bakarkako otoitzean eta elkarte ospakizunean harremanean jartzen naizen Jainkoaren esperientzia.

... mugatasunaren eta hobetzeko laguntasunaren esperientzia.

... ingurura zabaltzearen esperientzia, ezagutzeko eta aldatzeko.

Hauxe da gure kristau izatearen oinarria eta gure hezkuntza eginkizunaren bihotza

### **b.6. Otoitz eta ospakizun bezala**

Bakarka eta taldean egiten ditugun otoitzetan eta batera egiten ditugun ospakizunetan sakontzen da kristau esperientzia honetan. Bizitza pertsonala, taldearena eta munduarena hausnartu, errezatu eta ospatu egiten da Jainkoa bertan antzemanetz eta sentituz, gazteei dagozkien bideetatik eta adierazpen alai eta sortzaileekin.

Era berean, sakramentuak une pribilegiatuak dira guretzat, gure fedea eta bere elkarte sena sustatzeko

### **b.7. Konpromiso bezala**

Fedearen benetakotasuna Jesukristoren balioen mailakako barneratzean eta Jainkoaren egitasmoaren balioen araberako gizarte eraldaketan adierazten da

### **b.8. Heziketa bezala**

Ezinbestekoa da gaurko munduari kristau esperientzia ulertaraztea, arrazoitzea eta jakinaraztea. Horretarako heziketa teologikoaz

# b. sinestedunaukera

gain, psikologiaren eta fedearen pedagogiaren elementuak eskaintzen dizkiegu monitoreei hezkuntza jardueratik.

Beharrezkoa bada eta norbaitek eskatzen badu, kristau sarbideko sakramentuetarako heziketa egokia ere eskaintzen dugu, kristau sarbideko prozesu garelako

## **b.9. Eliza eta elkarre bezala**

**9.1.** Fedea elkartean jaiotzen eta hazten da. Jesusen jarraitzaileok Berak batzen gaituela sentitzen dugu eta, horrela, Eliza osatzen dugula. Horregatik, EE Elizaren zati sentitzen da eta haren egitekoari lotuta. Kristau bezala elkarrekin bizi ditugun zorion eta maitasunak gure inguruan fedea iragartzera eta transmititzera eta elkarre gure kide guztientzako zeru-muga bezala eskaintzera garamatzate

**9.2.** EE osatzen dugunok elkarre jakin eta ageriko kide gara. Bertan jadesten dugu heldutasuna sinestedun bezala eta gure fedea beste batzuekin batera bizi dugu. Elkartetik egiten dugu gure hezkuntza lana. Elkarrekin sustatzen gaitu gure egitekoan eta lagun egiten diguten eta fedean helduak diren arduradunak eskaintzen dizkigu

**9.3.** Elkarre jakin horretan kide ekintzaile eta ardurakide izan nahi dugu, beste batzuekiko komunioan, ardurakidetasuna gauzatzeko ditugun era bateko eta beste plataformetan

**9.4.** Honelako elkartetik, beren hezkuntza lana elkartean bertan gauzatzen duten eta, erreferentzia taldeetan eta elkarre bizitzeko alderdi desberdinetan parte hartuz, beren kristau fedean hazten doazen arduradunen alde egiten dugu. Fede esperientzia pertsonal honetatik, beste lagun batzuekin batera umatzen den Jesukristorekiko atxikimendu aske honetatik, arduradunak ikasleei lagun egiten die beren giza eta kristau garapenean

**b.10.** Pertsonengandik eta hauen arazoetatik hurbil dagoen Eliza bizitzen eta horren alde egiten saiatzen gara, hau da, Maitasun sakramentua den Elizaren alde

## **Honako ezaugarriak dituen Elizaren alde, hain zuzen:**

- Ebanjelioaganako leialtasunetik jarduten duen Eliza
- Bataioan sortutako berdintasun erradikala bizi dugun anai-arreben

# b. sinestedunaukera

elkartea izan dadila: gizonetzko eta emakumezko, nagusi eta gazte, laiko eta ministro ordenatu

- Beste erlijio batzuekiko elkarrizketara, erlijio arteko elkarrizketara zabalik dagoen Eliza
- Erreinuaren eraikitzaile, gizon eta emakume guztien, batez ere kaltetuenen, zerbitzari den Eliza
- Beti mugimenduan eta zabalik dagoen Eliza, aurkezten zaizkion erronkei aurre egiteko gauza den Eliza eta "garaian zantzuei" arreta eskaintzen dien Eliza
- Mezua iragartzen duen eta gure gizarteko bidegabekeriak eta zapalketak ausardiaz salatzen dituen Eliza

**b.11.** Ardurakidetasunez parte hartzen dugu Euskal Herriko Elizan eta, gizon eta emakume guztiekin batera, Jainko Herriko kide izatera deituak garen katolikoak gara

## Fedean hezteko metodotik:

**b.12.** Euskalerriko Eskautak erakundeak fedearen pedagogiarako berariazko metodoa garatzen du. Honetan oinarritzen da:

- Batera jarritako esperientzietan
- Esperientziak gogoetatik, ebaluaketatik, testigantzatik, ospakizunetik eta konpromisotik pertsonalizatzean. Ekintza - Gogoeta - Ekintza (EGE) deitzen dugu. Eskaut Legea eta Agintza pedagogia honen barruan daude. Horrelaxe antzematen eta ulertzen ditugu beren adierarik sakonenean: Jesukristoren Jainkoaren Maitasuna

**b.13.** Bere erlijio heldutasunean, gizakiak onartua, errespetatua, argitua eta adoretua izan behar du. Neskato, mutiko eta gazteak ibilbidean daude, aurkikuntza eta heldutasun prozesuan. Monitoreek konfiantza eta hurkotasunezko jarreratik laguntzen diete, taldean erlijio bizipena adoretu eta sustatu egiten dute, hizkera egoki, sortzaile, gazte eta originalarekin eta eskultismoari dagozkion baliabide pedagogikoak erabiliz

# c. gizartea aukera

**c.1.** Euskalerriko Eskautak (EE) erakundeak Euskal Herrian garatzen du bere hezkuntza egitekoa. Euskal Herria, berarentzat, historikoki lurraldeen artean bateratuak eta zehaztuak izan diren kultura eta gizarte ezaugarrien multzoa da. Ezaugarri hauek aztertu eta ezagutu egiten ditugu lehenengo, baita bere arazoak ere, hezkuntza aukera EE bezala era bateratuan eskaintzeko. Hezkuntza aukera hau lekuko errealitate bakoitzari moldatzen zaio, talde bakoitzean zehaztuz eta, horrela, EEeko gizarte, kultura eta politika aniztasuna errespetatuz

**c.2.** EEentzat, gure gizartea elkarte guztiz heterogeneo eta anitzen multzoa da; elkarteok, jakina, mundu neoliberal honetan azaltzen diren arazo berdinak jasaten dituzte. Beraz, EEetik mugimenduaren izaera alderdikoia ukatzen dugu, baina gizakia gero gizarte eraldaketa ahalbidetuko duen askapen eta eraldaketaren eragiletzat hartzen duen bere izaera politikoaren, hau da, salaketa eta politika ekintzaren alde egiten dugu. Gure ustez, gainera, politika ordezkapen parlamentarioa baino askoz gehiago da, eta, horregatik, politikaren, herritarren ekintzaren eta herritartasunaren beraren esanahi zabala berreskuratuz

nahi dugu, gizon eta emakumeen eta gizartearen etorkizun historikoan hobeto eragiteko. Honela ulertzen dugu gure egiteko hezitzaile eta pedagogikoa: beraiei ere badagokien gizarte etorkizunaren gorabeheretan parte hartzen duten pertsona ekintzaile, kritiko eta konprometituen garapenerako prozesu osagarri bezala

**c.3.** Osoko hezkuntza bultzatu nahi duen mugimendu izanik, kristau ikuspuntua ematen diogu gure ekintzari, "arimarik gabeko ekintza" deitu izan dena, ekintza hutsa, erreferente ideologiko edo espiritualik gabeko ekintza, bere ezaugarriengatik nahitaez porrot egingo duen ekintza, alde batera uzteko. Jesukristorenganako fedeak eta Berari jarraitzeak garamatza gizarte eraldaketarako konpromiso honetara

**c.4.** Guzti horregatik, EEek, haurtzaro, adoleszentzia eta gaztaroko errealitateak uztartzen dituen hezkuntza mugimendu bezala, beharrezkotzat eta ezinbestekotzat jotzen du gazteria garapen eta gizarte aldaketarako motortzat hartzea; bizi behar dugun errealitatearen eraldaketan konprometitutako biztanleriaren zati bezala; eta gure auzo, herri edo hirian dagokigun

# c. gizartea aukera

egunerokotasunarekin. Lankidetzak ikuskeratik, beharrezkotzat jotzen dugu elkarte sarea sendotzea, gizarte aldaketaren benetako motor bezala eta, mugimendu eta federakunde bezala, beste elkarte batzuekin koordinatuta eta sinergia sozialak erabiliz, sarean jarduteko gauza izan behar dugula berresten dugu

**6.5.** Hala eta guztiz ere, EE jabetzen da boluntario terminoak gaur egun jasaten dituen mugez. Ondorioz, federakundetik, boluntario bezala, benetako militantziantz jotzeko, doakotasunean, elkartasunean, eskaut Legean eta Agintzan oinarritutako benetako bizi estiloaren hazpenarekin aurrera egiteko konpromisoa sendotzearen beharra geure egiten dugu. Eskaut monitoreen militantzian sakontzeko ikuskera honetatik, federakunde bezala, gure inguruan gertatzen diren gertaeren aurrean, gizarte mailan jarrera hartzeko dinamikak aurkezteko aukera sortzen da

**6.6.** EEek, hezkuntza mugimendu bezala, elkartasuna, aniztasuna, elkarrizketa, desberdinen eta bertan egon daitezkeen kultura anitzen errespetua nabarmentzen diren lankidetzak ikuskerako gizartearen alde egiten du. Gainera, gizon eta

emakume guztien funtsezko beharrak, batez ere gizarte bazterketazko dinamika edo egoerak bizi dituztenenak, bermatuko dituen gizartearen alde

## Izadia

**6.7.** EEen ustez, izadia terminoa bere hezkuntza egitekoan sartzea garrantzitsua eta beharrezkoa da, baina ez nahikoa. Beharrezkoa da, gainera, ingurugiroan uneoro kalte larriak eragiten dituen gaurko gizarte ereduari kritika egitea. EE, hezkuntza mugimendu denez, horretaz jabetzen da maila guztietan: politikoa, soziala eta hezitzailea.

Herri honek, izadiarekin, Ama Lurrarekin betidanik izan duen harremana errebendikatzen dugu, baliabideen emailatzat ez ezik, bizi emailatzat eta bizi ugaltzailatzat hartuz.

Garapen jasangarrirantz joan behar dugula ere uste dugu, maila energetikoan nahiz eguneroko kontsumoko ohitura pertsonaletan, oinarritzko beharren ikuskeratik erdibanatzeko eta bizi izateko jarrera berreskuratuz. Murrizketara, gauzak berriro erabiltzera eta birziklatzera jo behar dugu.

# c. gizartea aukera

Guzti horregatik, izadiak jasaten duen etengabeko espoliazioa eta baliabide naturalen neurritz kanpoko esplotazioa salatzen ditugu. Baita jasangarritasuna ahalbidetzen duten mugak ere gainditzen dituzten neurririk gabeko kontsumo erak ere.

Hezkuntza mugimendu bezala, zera ulertzen dugu:

- Esparru horretan gauzatu beharko litzatekeela batez ere gure hezkuntza egitekoa: izadiak ahalbidetzen du gizakiak bere buruarekin eta gizakiak Jainkoarekin bat egitea, hiriguneko berariazko murrizketa eta mugek hainbeste baldintzatzen ez duten inguruan harremana eraginez. Inguru natural honek gizakiaren ahalmen eta sentsibilitateen adierazpena, beren naturaltasuna, beren askatasuna eta horiez baliatzeko aukera eragiten du
- Izadiak izan behar duela gure osagai metodologikorik nagusia: hezkuntza esparru bezala berreskuratzea ezinbestekoa dela ikusi behar dugu, hortxe direlako benetakoagoak berdinen arteko harremanak eta bertatik abia gaitzkeelako gizakien benetako autonomia eta autogestiora
- Ingurugiro hezkuntzara aurrera egin behar dugula hiri esparrutik, hauxe

delako gizakiaren eguneroko bizigiroa eta bertatik hasi behar duelako gizakiaren eta inguruaren benetako eraldaketak, izadia zaintzeko eta sustatzeko dinamikak eskainiz

## Bakerako eta gatazkak konpontzeko hezkuntza

**c.8.** Benetako bakearen kulturaren alde gaude. Gizarte gatazkatsuan bizi diren gizon eta emakumeen osoko hezkuntza nahi duen mugimendu garenez, biziaren eta giza eskubideen eskubidearen aldeko jarrera argi eta nahitaezkoa dugu, horien bortxaketa dakarren edozein jarduerari aurka eginez eta salatuz. Era berean, herrien eskubide kolektiboen alde egiten dugu eta indarkeriarik eza dugu gatazkak, eta bereziki gure herrian gertatzen dena, konpontzeko bidetzat.

EE tolerantziaren, desberdina errespetatzearen, entzutearen, elkarriketa eta adostasunaren alde gaude, bakea berdintasun eta bidezko garapenezko egoeratzat hartuz; desdoitze estrukturalen eta honek dakartzan indarkeria moten inpaktua txikiagoa izango den gizartea eraikitzeko bidetzat.



# c. gizartea aukera

## Kultura eta euskera

**6.9.** Kultura gizatalde batek konpartitzen dituen balio, arau, jokaera, ideia eta produktuen multzo konplexua da; gizatalde horretako kideen arteko eta hauen eta inguruaren arteko harremanak arautzen dituzte. Heldutasun pertsonalera iristeko ibilbide honetan, ezinbestekoa da jendeak kultura nortasuna jadestea: herri bati, lurralde bati, balio batzuei eta errealitatea ulertzeko era batzuei atxikitzea. Gizabanakoak, aurrera egiteko, bere errealitateari atxikitzeko sustrai anitzak behar ditu. Beraz, euskal herriaren berariazko sustrai historikoei eustearen aldekoak gara; tradizioaren elementu naturalak berreskuratu egin behar ditugu eta herri bezala dugun bizitzaren zentzuaz jabetu. Besteak beste, euskera aipa dezakegu berariazko hizkuntza bezala.

EEek euskera gure kulturako osagai dela uste du. Ondorioz, gure herri izatasuna berresten dugu euskeraren erabilera, normalizazio eta bultzatzetik, eta gure eguneroko bizitzan ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea errebindikatzen dugu, bertan dauden gainerako hizkuntzen antzera, gure kulturaren aberastasun

iturri bezala. Era berean, euskeraren erabilera politizatze alderdikoen aurka gaude eta gure hizkuntza balio, kultura eta eskaut metodoan oinarritutako osoko hezkuntzaren komunikazio eta transmisiorako tresnatzat errebindikatzen dugu

## Kulturartekotasuna

**6.10.** EE jabetzen da etengabeko aldaketan dagoen kultura, gizarte eta ekonomia errealitateaz. Dinamismo honen fruitu, etorkinak emititzen dituen herri izatetik gure lurra jomuga hobetzat eta garapen pertsonalerako aukeratzat duten gizon eta emakumeen jomuga nagusi izatera igaro gara. Etorkinen kopurua gehitzen doa egunez egun eta gure hezkuntza lanaren barruan dago arraza, erlijio eta kultura desberdinen integrazioan laguntzea. Horregatik, hezkuntza mugimendu bezala, benetako kulturartekotasunaren alde gaude; errespetu, elkarrizketa, batera bizitze, elkar aberaste eta kultura desberdinen arteko elkarreaginaren alde.

Honela ulertzen du EEek kulturartekotasun hori: gurearekin batera bizi diren eta egunez egun aurkitzen ditugun era bateko eta besteko kulturen ezagutza, balorazio

# c. gizartea aukera

eta partehartze bezala. Bizikidetasunaren alde gaude, errealitate zuzenago eta pozgarriagoaren alde, gure herria osatzen duten kultura desberdinen arteko benetako ulermen eta elkarrizketaren alde

## Aparteko hezkuntza errealitateen normalizazio eta integrazioa

**c.11.** EEek aparteko hezkuntza beharrak dituzten lagunen benetako normalizazioaren alde egiten du. Hala nola, integrazioarako bide bezala hartzen dugu eta gure egitekoa da, hezkuntza aukera aintzat hartuta, gure taldeetatik bizikidetasuna lortzeko apustu benetako eta eraginkorra egitea

## Baterako hezkuntza

**c.12.** Era berean, gizartearen egituraketan nabarmentzen den patriarkatua indargabetu behar dugu. Gure hezkuntza egitekoa bereziki eraldatzailea den neurrian, baterako hezkuntza da, gure iritiz, genero diskriminazioa gutxitzeko biderik onena eta eraginkorra, horrela, gizon eta emakumeen arteko berdintasunerantz jotzeko

## Garapenerako hezkuntza

**c.13.** EEen, gero eta autoritarioagoa den pentsamendu bakarra dakarren ekonomia eta kultura globalizazioaren zabalkunde nagusi den errealitate berriaz jabetuta, eta, era berean, herri bezala pentsamendu bakar hau jasaten dugula antzemanda, eredu horri uko egiten diogu eta Iparraldeak Hegoaldea zapaltzea deuseztatzen edo onartzen ez duen garapenerako benetako hezkuntzaren alde gaude.

Batez ere behartsuenganako elkartasunean oinarritutako sentsibilizazioaren eta hezkuntzaren alde egiten dugu, gure elkarteetan gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden lagunekin hasita.

# gure pertsona eredua

Gure pedagogiatik -ez da pedagogia neutroa eta jarrera hartzen du-, eta hiru aukerak aintzat hartuta, Euskalerriko Eskautak pertsona eredu jakin baten alde egiten du:

**Askea.** Heldutasunerako ibilbidean protagonista eta bere erabakiak heldutasun eta erantzukizunez hartzeko gauza dena. Askatasunez hautatzen du, berarentzat zein elkartearentzat zein eragin duen jakinda.

**Kritikoa.** Inguruan gertatzen direnak baloratzen jakin behar du, bidegabekeriaren, indarkeriaren, diskriminazioaren eta zapalketaren aurrean sentibera.

**Benetako giza errealizazio** eta askapena galarazten duten egitura sozial, ekonomiko, politiko eta erlijiosoen eraldaketan konprometitua.

**Bakarra.** Bere gaitasun eta ahalmenen garapena bere egoera pertsonala eta mugak aintzat hartuta egiten duena. Den bezala baloratua den pertsona, zintzoa, bihotzez garbia, kontsekuentea, e.a.

**Etengabeko hazkunde prozesuan.** Etengabeko bilaketan eta elkarte eta taldearekiko, inguru

eta historian antzematen dituen balioekiko -bere bizitza bideratzen eta zentzuz betetzen duten balioak- etengabeko kontrastean.

**Transzendentziara zabalik dagoen pertsona.**

**Ekintzailea eta sortzailea.** Ideiak, egitasmoak eta irtenbide alternatiboak sortzeko gauza eta hazkunde eta eraikuntza positiboko etengabeko prozesuan dagoena.

**Sinestuna.** Transzendentziara zabalik, Nazaretoko Jesusengan aurkitzen du bere bizitzarentzako, giza bizikidetasunerako eta bere konpromisorako zentzua.

**Ardatz hauetatik, EEek honako gizakiarengan sinesten du:**

- "Edukitzeko" ez ezik, "izateko" bokazioduna.
- Taldean -elkartean- gizaki lez hazten dena.
- Ebanjelioa eta Nazaretoko Jesusi jarraitzea oinarritzat hartuta, aske eta jakinaren gainean aukeratu duen bizi estilo batekin konprometitua.

# gure pertsona ereduak

- Kulturartekoa nortasun kolektiboarekin. Sustrai sendo eta argietan irauten duen pertsona, bere herria eta herrikideak maite dituena, baina mundura, kultura trukera zabalik dagoena, harreragilea eta abegitsua dena kulturarteko gizarte berrian.
- Bakerako, bizikidetasunerako eta gatazken konponketa positiborako hezia.
- Munduaren ikuskera globala duena, jasangarritasuna eta ingurugiroko oreka bezalako irizpideetatik. Neurritasuna du bizimodutzat eta zalantzan jartzen ditu indarrean dauden kontsumo, ekoizpen eta ekonomia antolaketarako ereduak.
- Baterako hezkuntzaren eta gizon eta emakume guztientzako aukera berdintasunaren alde jarduten du, sexua, kultura eta sinesteengatik bereizketarik egin gabe.
- Bere inguruan, bere inguruko gizon eta emakumeekin, batez ere kaltetuenekin, konprometituta dago, zuzentasun eta elkartasunezko irizpideetatik.

